

Kartzelak ez du bergizarteratzen espetxe pastoraleko taldeen ustez

Era berean, egungo zigor ereduari alternatiba bilatzeko eskaera egin dute


Hegoaldeko elizbarrutietako espetxe pastoralaren arduradunak Begoñan (Bilbo) bildu dira asteburu honetan, Santander eta Errioxako taldeetako ordezkariekin batera. Kartzelak ez direla konponbidea da atera duten ondorioa, «ez baitu preso daudenak bergizarteratzeko eta hezitzeko balio». Hori dela eta, «edozein alternatiba errealista laguntzeko prest» daudela adierazi dute.

DONOSTIA

Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea, Tuter, Santander, Calahorra eta La Calzadako elizbarrutietan espetxe pastoralan aritzen diren ehunen bat lagun, Begoñako (Bilbo) Izpiritualitate etxean bildu ziren iragan asteburuan, egun kartzeletan bizi den egoera aztertzea helburu hartuta. Topaketa hauen haritik ateratako ondorioak ez dira batere baikorrak, besteak beste, kartzelak ez duela bere egitekoa inola ere betetzen baieztatu baitute.

«Behartsu eta marjinauen alde egin dugun aukeratik abiatuta, eta presoan lagun eta senide sentitzen garen heinean, kartzela ez dela konponbidea esan behar dugu», esaten du hitzez hitz bilkuren ondoren plazaratu duten idatziak. Ildo horretatik, espetxeek ez bergizarteratzeko ez presoak hezitzeko ez dutela balio ziurtatu dute.

Ondorioz, beste zigor eredu batzuk aurkitu behar dira lehenagok aipatutako espetxe pastorale-



Kartzelen balioa zalantzan jarri dute kristau talde hauek.

ko taldeen aburuz. «Askatasuna galaraztean oinarritzen diren zigor ereduak erabiltzen dira gaur egun, baina horiek ez dutela ezer konpontzen ikusita, errealista den edozein esperientzia berri laguntzeko prest gaude», azpimarratu dute.

Baina aurrezaintza eta bergizarteratzean ikusten diete delinkuentzia nahiz presoan arazoari irtenbidea kristau talde hauek. Beraz, kristau komunitateei behartsu eta marjinauekin konprometzu handiagoa hartzeko deia egin diete, «delinkuentziaren aurrezaintza, presoan tratamendu egokia eta bergizarteratzean behar diren baliabide per-

tsional eta materialak jarritz».

Kaleratu berri duten idatziaren bidez, elkartasuna adierazi nahi izan diete gainera presoei, «batez ere intsumiso, gaixo eta kartzela zigorra euren bizilekuetatik urrun betetzen ari direnei».

Espetxe pastoralari buruzko jardunaldi hauek iragan larunbatean hasi ziren Luis Maria Larrea Bilboko gotzainak egindako hasiera hitzaldiaren bidez. Hilarien artean, berriz, Jose Sesma Leon Espetxe Pastoralako zuzendaria izan da, «Ebangelizazioa eta marjinazioa» gaia aztertuz. Santanderko gotzainak ere parte hartu du Begoñan egin den bilkura honetan.

Atzo banatu zituzten Gasteizen Emakunderen aurtengo sariak

GASTEIZ

Jose Antonio Ardanza Euskal Autonomi Elkarteko lehendakaria buru izan zuen atzo gauean Gasteizen egin zen 1993ko Emakunde sariak banatzeko ekitaldiak. Ardanza gainera, Txaro Arteaga Emakundeko zuzendariak eta Itziar Fernandez idazkari nagusiak ere parte hartu zuten. Gasteizko egoitzan eta jai giroan ospatu zen, EAEko nahiz Araba eta Gasteizko agintari batzuen presentziarekin.

Aurtengo lehiaketako epaimahaikideek informazio orokorra eta kirolekin zerikusi daukana aintzat hartu zituzten sariak ematerakoan. Informazio orokorrari dagokionez Maddalen Iriarteri eman zioten telebistaren alorrean, duela hilabete batzuk zuzendu eta aurkeztu zuen 'Ados?' ETB-leko programatik. «Gaiak planteatzeko orduan erakutsitako seriotasuna eta emakumezkoen iritziak maiztasunez agertarazteko esfortzua» aintzat hartu ziren Iriarteren saioa saritzeko.

Bestalde, kirol informazioaren alorrean, Hasier Etxeberriak ETB-lean ere egindako 'Beti eskamak kentzen' programari lehen saria eman zioten ikus-entzunezkoiei dagokionez. Kirol kazetaritzan eta herri kirolekin diharduten emakumezkoen giza alderdia agertzeagatik.

PRENTSAN ETA IRRATIAN

Era berean, ikus-entzunezkoen alorrean bertan, informazio orokorarentzako ohorezko saria Enrique Uralde eta Begoña Pena 'El carrusel' bideoaren egileei eman zitzaion.



Maddalen Iriarte.

Bestalde, prentsaren alorrean 'El Diario Vasco' egunkariko Gloria Abanda kazetariari eman zioten aurreneko saria. Kirol informazioagatik Nekane Lauzirika 'Deia' egunkariko kazetariak jaso zuen eta ohorezko saria 'El goibarren' aldizkarian lan egiten duen Ainhoa Lodosori egokitu zitzaion.

Irratigintzan Esther Remiro Gipuzkoako 'Radio Nacional' kateko kazetariak jaso zuen informazio orokorrean eta kirol informazioari buruzko atalean epaimahaiak ez zuen saririk eman.

1993ko Emakunde sariak erabakitzeak epaimahaikideak honako hauek izan ziren: Itziar Fernandez Emakundeko idazkaria, Begoña Azarloza Eusko Jaurlaritzako Kultura saileko Laguntza Batzordeko zuzendaria, Maite Zuriaga atleta, Arantxa Lazkano zinema zuzendaria, Pedro Ramos Arabako Foru Aldundiko Kultura diputatua, Ramon Trecet kazetaria eta Manu Leginetxe kazetaria.

Gas naturalez dabilen autobusa martxan Bilbon urtarrilean

G. AGIRRE / BILBO

Gas naturalez dabilen Euskal Herriko lehenengo autobusa martxan jarriko dute datorren urtarrilaren lehenengo hamabostaldian. Naturbidea izeneko autobusak Eusko Trenbideak-eko Bilbo-Getxo-Aizkorri ibilbidea beteko du.

Autobus hau Eusko Trenbideak, Energiaren Euskal Erakundea, Gas de Euskadi eta Iveco-Pegasok garatutako ikerketa eta garapen proiektuaren barruan kokatzen da. Aldi berean, proiektu hau Europako Batasuneko Thermie izeneko programaren barruan dago, azken honek energi teknologia berriak bultzatzea helburu duelarik.

Juan Antonio Uriarte Eusko Trenbideak-eko kontseilari or-

dezakariak azpimarratu zuenez, autobus ekologiko honek «oso kontsumo txikia dauka eta garraio garbia da, oso gutxi kutsatzen duelako».

Mantenimendua kontuan hartu gabe, autobus honek 41 milioi pezetako (1,7 milioi libera) aurrekontua izan du eta Europako Batasunak finantzatu du. Datorren urte osoan zehar proba modura erabiliko da Naturbidea izeneko autobusa. Epe honetan kontrol eta jarraipen batzorde batek erregaiaren kontsumoa, kutsadura maila, matxurak edo behar bereziak aztertuko ditu.

Urtebeteko probaren ostean, gas naturalez dabilen autobusa errentagarria dela ikusten bada, Uriartek esan zuenez, «etorkizuneko autobus guztiak gasezkoak izan daitezen saiatuko gara».



41 milioi pezetako aurrekontua du autobusak.

XOUSA SIMA